

Webgune honek cookie-ak erabiltzen ditu zure nabigazioa errazteko, publizitatea erakusteko eta analisi estatistikoak egiteko. Nabigatzen jarraitzen baduzu, hauen erabilera onartzen duzula ulertuko dugu. Informazio gehiago nahi baduzu, kontsultatu [Cookie Politika](#). [Onartu](#)



GAUR | 2016-09-27

Nork: [Ainhoa Mariezkurrena](#) - Ira 21, 2016

ERRETERIAK ELKARTUTAKO KIZKI BILTZAILE KOPURUA GAINDITZEKO ERRONKA

Igandean, hilak 25, Kizkia Eguna ospatuko dute zortzigarren; aurten, Astigarragan. Urtero bezala, jarduera nagusia [kizkiarekin](#) egidako sagar-biltze lehiaketa izango da, ahalik eta "kizki-lagun" gehiago lortzea helburu. Iaz Erreteria-Oreretan elkartu ziren 441 biltzaileak gainditzeko erronka da aurtengoa, 700 biltzailera iristeko asmoarekin.



Lehen Kizki Eguna Oiartzunen orain hiru urte (Arg.: Oskar Zapirain)

Zazpi herrietan ospatu izan da urtero Kizkia Eguna: Oiartzun, Goizueta, Hernani, Donostia, Usurbil, Orereta eta Astigarragan. Azken honetan sortutako GOLDEA elkarteak bultzatu zuen ekimena, "sagardogintzaren kultura, sagarra biltzeko prozesua eta kizkia bera ezagutarazteko helburuz". Hala kontatu du [Sagardoaren Lurraldeak](#). Orain, Hernaniko Sagardo Kofradiak, Donostiako Parte Zaharrean Bizi elkarteak, Usurbilgo Sagardo Eguna eta Oreretako elkarteak ere batu dira.

Igandeko bilkura eta erronkara herrialde guztietako jendea animatzen dute. Parte hartu nahi duen orok www.sagardoarenlurraldea.eus webgunean edo egunean bertan eman dezake izena. Ekimena 13:00etan izango da, baina egun guztiko egitaraua antolatzen dute: marmitako lehiaketa, erronka, bazkaria, zazpi herrien arteko sagargintza desafioa, etab.

ASTIGARRAGA KIZKIA OIARTZUN ORERETA SAGAR BILTZEA SAGAR UZTA SAGARDOA SAGARGINTZA



AINHOA MARIEZKURRENA

Ez dago ekarpenik

EGIN IRUZKIN BAT



HEZITZAILENTZAT ESKOLA; "KALITATEZKO HEZKUNTZA EZ FORMALA SUSTATZEKO"

LOTUTAKOAK

ETIKETAK

ATALA

EGILEA



Apurka ari dira hautetsontziak betetzen ...

Nork: [erik gartzia](#) - Ira 25, 2016

■ Hauteskundeak Legebiltzarra



Inork nahi ez duena agertu da

Nork: [erik gartzia](#) - Abu 4, 2016

■ Gizartea



Herriko usadio eta nortasuna indartzen a ...

Nork: [erik gartzia](#) - Mar 19, 2016

■ Kultura



Puntuak gehitzen jarraitzen du Oiartzunek

Nork: [eihartze aramendia](#) - Urr 12, 2015

■ Kirola

Albiste irakurrienak



[ARGAZKIAK] GIRO HANDIA SAN PEDROKO ETA ANTOKO JAI TXIKIETAN



ORERETAKO GAZTETXEAK XVI URTEAK OSPATUKO DITU

Izena *

Email *

Website



CAPTCHA Code *

BIDALI IRUZKINA

[Cookie Politika](#) | [Pribatutasun Politika](#) | [Lege Oharra](#)

© Oiertzualdeko Hedabideak S.L. • Santa Klara kalea, 22, Errenteria-Orereta 20100 - Tel.: 943-34 03 30 - E-posta: oarsobidasoa@hitza.eus

Gipuzkoako
Foru Aldundia



WEBGUNE HONEK BAT EGITEN DU [CREATIVE COMMONS](#) ERABILERA LIZENTZIAREKIN.

